



PROSTATAKO BIOPSIA Zainketak eta gomendioak

Prostatako biopsia egin dizute, eta zenbait lagin hartu dizkizute aztertzeko. Proba egin ondoren, beste zita bat emango dizugu urologoarekin, emaitzen berri emateko.

Prozeduraren ondoren, normala da odola ateratzea gernuaren bidez, baita koaguluak ere. Kantitatea ez da handia izaten. Egun batzuk pasatutakoan desagertzen dira, eskuarki. Era berean, odola ager daiteke uzkiean edo semenean, eta egun batzuk behar izaten ditu desagertzeko.

Tratamendua baduzu antiagregatzaileekin (Adiro[®], Clopidogrel[®]...) edo antikoagulatzaileekin (Sintrom[®], Aldocumar[®]...), adi-adi ibili behar duzu sintoma horrekin. Medikiak azalduko dizu nola heldu berriro tratamenduari.

Zorro bat emango dizugu analgesikoen zenbait dosirekin, mina izan baitezakezu, nahiz eta ez den handia izaten, oro har. Ez hartu aspirinarik, odola ateratzeko arriskua areagotzen du eta.

Ariketa fisikoaren inguruan, prozedura egin eta hurrengo orduetan egin ahal izango duzu, ariketa fisikoa gogorra ez bada behintzat.

Ohiko dietarekin jarraituko duzu, baina izan gogoan hobe dela zuntz ugari hartzea idorreria ez gertatzeko (osoko ogia, fruta, barazkiak...). Komeni da ur asko edatea gernua argitzeko pixkana-pixkana, bihotzarekin edo giltzurrunekin lotutako kontraindikaziorik ez badago.

Odol asko ateratzen bada, pixa egitea oso zaila bada, sukarra baduzu edo min handia baduzu eta analgesikoekin arintzen ez bada, jo Larrialdietako Zerbitzura.

Zalantzarik izanez gero, jar zaitez harremanetan goizeko txandan Urologiako kontsultarekin edo zure osasun-zentroarekin _____.

ZENTROA	TELEFONO ZENBAKIA
AUO-KO KANPO KONTSULTETAKO UROLOGIA KONTSULTA	945 007500